

## "Espainian sartuko dugu"

*Euskaldunon Egunkaria*, 1994-11-08: 2.

Espainolen eta frantsesen ametsa euskaldunok menderatzea da. Ez datza frantsera eta espainiera guri itsatsi nahi izatean bakarrik, hauen mamia eta hezurak gureak bezala sentitzea nahi dute, eta ahalegin faszistekin saiatzen. Halere hau ezina denez, inori kalterik egiten ez dion gure hizkuntza ele biziaren artetik ateratzea erabaki dute askotan alferrik, eta onenean ere Museoan ikusgai hilen biltegietan lotsaz gordeta eduki. Gorrotoak ez du gehiago ematen. Exenplu gisa, ikustekoa izan da joan berriak diren hauteskundetan Espainiako alderdien eskuineko eta ezkerreko gure kontrarioak beren arteko ezin ikusiak gorde eta euskaldunen aurka nola jarri diren. Sartu egin behar gaituzte bere moldetan! PSOE-EE Jauregik esan duen bezala, "Espainian sartuko dugu euskal Estatutua!". PSOEko beste euskaldunetako batek, Egigurenek, esan du orain arteko abertzaleon aurkako borroka ez dutela behar bezala planteatu, eta honetxegatik galdu dutela, baina hurrengo txandan gure aurka biltzera jokatu beharrean, gu zatitzera jokatu dutela, UAKo euskalduna ez denak egin duen bezala, eta honetxegatik irabazi dutela, eta nazionalistarik eta euskararik gabeko Gobernu euskalduna osatzea dela gure herriaren salbabidea. Baina euskaldunik gabeko Euskal Herririk ezina denez, beste izen bat beharko dute frankismo berriko kima hori pizteko, eta biribilak guri euskal zentzua aldatzeko.